

# OR-EMENDIKO IZPARRAK

*Bertsolariak ala biolin-jotzaliak?*—Paris'tik bialdu diguten karta batek onela dio: «Euskaldun irakurliak ba-dakite, askok beintzat, Urruña'n eta Paris'en, bertsularien txapelketa bat jokatu zala joan dan urtian. Baina irakurle oietako geienak ez daki-tena da, txapelketa ori dala-ta, Madrid'eko eta Barcelona'ko izparringi aundienak eman zuten herria. Aspaldi xamarreko kontua da... baiño merezi du aipatzea: ain da polita! Izparringi aundi oiek ez dituzte ba-gure bertsulariak *biolin-jotzaliakin* nastu? Ikusten al dezute zuek *Uztapide* biolina ko-kotz aspian estututa, begiak zuri-zuri zeru aldera bihurturik, Guridi'n edo Usandizaga'ren musika jotzen...? *Basarri* berak ere ez luke itxura txarra izango. Eta *Mattin*'ek, dan bezelako tikiakin, bere txapel aundi ta tipa borobillakin...? Ez naiz gero txantxe-tan ari, eta ara emen izparringi oiek itzez-itx esan dutena:

«*Biolin-jotzaleen txapelketa internazional* bai Paris'en. Paris, 22. Euskaldunen arteko biolin-jotzaleen txapelketa internazionala jokatu da. Juraduko gizon geienak LA SORBONA'ko eta Paris'eko eskola nagusietako irakasle edo profesoriak ziran. Urruña'n (Franzia'n) aukeratutako lau oberenak jokatu dute: *Basarri* eta *Uztapide* España'tik eta *Xalbador* eta *Mattin* Frantzia'tik. Azken erabaki ofiziala izan zan: *Lenengo Basarri* (España) eta beste iru biolin-jotzaliak puntua berdin, irurak batera. Ain aundia izan da txapelketa onen garrantzia, nun Frantzia'ko radiuak eta telebisiuak bein baiño geiagotan jakinarazi diote jendiari.»

Anka-sartze polit onek, edozein modutara, gauz bat agertzen digu: Berri ori eman zuan izparrari edo perodistari ezin zitzaio-la buruan sartu euskaldun bertsulari arlote butzuk Paris'en atera zuten bezelako burrundara atera bear zutenik... Baiño, naiz arrigarri izan, burrundara ori bene-benetakua izan zan. Ez bakarrik España'ko eta Frantzia'ko radiuak, baita ere radio alemanak eta batez ere ingelesak txapelketa orren berri ausarki eman zuten: telebisiuak ere bere programan sartu zitun, Paris'etik pasatzen diran beste edozein gizon-emazte famatuen gisa. SORBONA'ko eta beste ikastola nagusietako gizonak bertan ziran. Azkeneko egunian Palais de Chaillot edo Tro-

cadere deitzen dan etxe nagusi ederrera ekarri zituzten. Bai, arrabost aundia eta ederra bertsulariak Paris'en atera zutena! *Udazale.*»

*Euskeraren eguna.*—Gazteiz, uriburua iraiña, ez daukagu lo; erriz gero ta dotoretuago dijoa. Oituraz? Bat-batetik asitze outan ez ditu saiets utzi nai beñolako oitura, lege zar, izkera ta abar. Bai, euskera dute arabarrak ere gogo ta zentzu; ezin beraz alborra utzi. Ta pozik diogu: Gazteiz'en, aspaldi, euskera piztu ta koskonduz dijoa, zori onez.

Ona orren agiri-ale bat. Prantzisko Xabier santua dugu euskeraren zaindari, ta napartar Santu gartsu onen egunean Gazteiz'ko euskaltzaleak, batez ere Ramiro Maeztu Ikastetxeko euskal-irakasle jatorrak (jai ederra ospatu zuten, itzaldi, alkar-izketa ta abesti mamitsuz euskera ta onen zaindaria goi-go iipiñiz.

*Euskaltzaleen Batzara.*—Euskaltzaindiak, urtero ezta ere, geienik beintzat, batzarrak egin oi ditu or-emen. Aurten, orain iru urte Arantzazu'n bezela, Bilbao'n eratu du Euskaltzaleen Biltzar apartekoa, joandako abenduaren 13'an eta 14'an. Izlariak trebeak eta gaiak sakonak. Ona batzuen izen-gaiak: *Mitxelena*, *Euskal itzak zeintzak diran*; *Aita Villasantek*, *Literatura ta izkuntza bizia*; *Aita Zabalak*, *Bertsolariak* eta Europa'ko lenengo gerratea; *Juan Gorostiagak*, *Crazia'n nola erabaki zan literatur izkuntza*; *Gabriel Arestik*, *Barrutia ta aien aroa*; *Juan San Martin'ek*, *Eibar'ko itzak*; *Alfonso Irigoien'ek*, *Bizka'ko literaturazko euskeltzia*; *I. M. Etxeita*, *Txillardegi*, ta abar. Batzar eder onurakorra, urtero, bakoitzean erri betean egin bear litzakena.

«*XABIER*» *agerkari berria.*—Euskal arloan ez ditugu aitzu bear, inñolaz ere, aurumetxoak. Auek bait-dira gure geroa. Nola-ko penaz ikus oi dugu maiz aurtxoak, sei-amar urterarte euskeraz baiño egiten ez zutenak, erderara jotzen. Zergatik? Eskoletan, bai, entzun ta ikasi erderaz dagite, ta gero errezago zaie izkera ori. Baiña umetxoak maite dituzte ipui, alegi, kontu polit ta gainarakoak ere; ta euskeraz ez dute olakorik, eta erderara jo bear.

Zori onez, mugaz bestaldetik, oraintxe eskiniño digute XABIER, umetxoentzat ille-roko polita.